

BAZTANGO MUTILDANTZAK PRENTSAURREKOA

Gaur hemen Baztango zenbait eragile elkartu gara eskakizun zehatz bat egiteko: hementxe berean, gu gauden toki honetan, Baztandarren Biltzarrean eta Elizondoko bestetan egiten den dantza baztertzailearekin akitzea.

Baztango Talde Feminista, Plazara Dantzara, Jo ala Jo, Baztandarren Biltzarra, Elizondoko herria eta Besta Batzordea eta Batzar Nagusiko zenbait kideren izenean, *Baztango Mutildantzariak* taldeari eskatu nahi diogu bazterketak egiteari uzteko, bai hemen, bai bertze edozein eremutan. Bazterketarik gabeko Baztan nahi dugulako.

Hamarkadak pasatu dira emakumeok, gure eskubideen defentsan Baztango Mutildantzetan parte hartzeko nahia azaldu genuenetik. Bide luzea izan da eta denetarikook izan dira emakumeak jasan ditugun erasoak, ahozkoak zein fisikoak. Ez da xamurra izan. Emakume bezala bestaz, dantzaz, plazaz eta tradizioez libreki eta nahi bezala gozatzeko eskubidea bermatu nahiak, antolatu eta borrokatzera eraman gaitu.

Hortaz, kolpeak jasan bezain laster zutitu gara eta aitzinerat segitu dugu, emakumeak izateagatik gure etorkizuna, gure askatasuna, eta gure bizitzak egunero jokoan daudelako.

Guk gure gorputza eta dantza, gure arma bihurtu ditugu, batzuk gudu-zelai bihurtu nahi izan dituzten arren. Borroka luze honen ondorioz Mutildantza dantzatzen den herriko plaza publiko guztietan dantza parekidea izatea bermatu dugu.

Herri honetan ere emakumeen kontrako erasoak oraindik ematen ari dira. Behin eta berriz salatu dugu matxismoaren alardea den eraso sexista kolektibo hau. Plaza publikotik kanpo emateak ez du erran nahi onartu behar denik. Etxe barnean eta altxapeka ematen baitira emakumeen kontrako eraso gehienak (irainak, kolpeak, bortxaketak, eta erailketak), eta elizate honetan gertatzen dena eraso larri horien oinarrian dagoen patriarkatuaren adierazgarri argia dugu.

Hau dena salatuz mozio bat aurkeztu genuen Baztango Udaleko Osoko Bilkuran eta Batzar Nagusian. Egoera honek aukera ematen baitigu guztioi batera, parekidetasunaren bidean, emakumeon eskubideak bermatuak izan daitezen aitzina pausuak ematera. Osoko Bilkuran mozio hau ez zen aitzinerat atera Geroa Baik, Baztango Ezkerrak eta Baztan Auzolanean-ek honen kontra egin zutelako. Zenbait ekitaldi instituzionaletan pankartan giblean emakumeen indarkeria salatzen ikusten ditugunak, oraingo honetan bazterketa hau babestu dute.

Batzar Nagusiak berriz, salaketarekin bat egin du, zenbait herriko alkate eta junterok eta EHBko hautetsiek erakutsi dutelako herritar guztiak ordezkatzeko dituztela eta ez dutela bazterketarik onartuko. Bertze batzuk abstentziora jo dute, UPN barne. Hauei garbi erraten diegu, erasoak salatzen ez duenak bidea libre uzten duela honek bere horretan segi dezan.

Baztanetik, Hondarribira, Iruñetik, Baionara, mendez mende eta inkisizioz inkisizio, gure eskubideak defendatzen eta bermatzen segituko dugu emakumeen kontrako zapalkuntzarekin akitu artio.

BAZTANEN 2018.10.24